



JUAN CRUZ ZAPIRAIN

Eres, Juan Cruz Zapirain el traductor elegante, de la notable y bella obra Genoveva de Brabante.

Ez daukat lotan nere begiya garbi ikusten det, orra, gauza gutxikin ordaindu dizut zugana genduen zorra

¿ N O I Z ? . . .

Manuel Uranga-k (Doñutua)

Zuri begira eziñ
azpertu naiz iñoiz,
esnatu zait biyotza-
txoriyak beziñ goiz;
¿ zer dala ta dirazu
biyotz au bete loiz
edo burni antzera
barren dena ordoiz...?
¿ Noiz garbituko nazu
noiz arrayotan; Noiz ?

Nere biyotzak dizu
oskotan otsegin,
ez dakit nola detan
zurekin utsegiñ;
¿ agiyan begirunez
aldizut gaitz-egig,
ez al dizut nai beziñ
gozoro itzegiñ...?
zure baimenak eman
lezaiket atsegiñ.

Darzaraz naukazu ta
neretzat da kalte,
biyotz eriya dankat
ez dakit noiz arte:
badaramazkit gaixo
bost edo sei aste,
nik maite zaitu baña
zuk ez nazu maite,
ni orla ikustez
errukitu zaite.

Amoriyo kartakin
alferrik jokatzez
biyotz minduna daukat
betea lokatzez;
ez al zera azpertu
maitia: ukatzez...?
josi dirazu biyotz
guztiya orratzez,
azper zaite bein batez
ber orri urratzez.

Burua zoratu zait
maitasun uzayez,
sendo lotua dankat
biyotza uztayez;
¿ ez al zera zaletzen
nik ditutan gayez...?
baimen zoragarri bat
betor zure mayez,
garai dala nai nuke
esatia bayez.

Juan Ignacio Uranga

Señora:

**No olvide que la mejor marca
de achicoria es la marca**

"EL LEON,"

en paquete azul

De venta en todos los Ultramarinos

Depositorio exclusivo en Benería: ROMÁN PÉREZ